

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/042

Izenburua: ETXEBIZITZAREN SUSTAPEN PUBLIKORAKO INSTITUTUA (IPPV)

Datak: 1942-1996

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 1923 instalazio unitate

Sortzailea: ETXEBIZITZAREN SUSTAPEN PUBLIKORAKO INSTITUTUA (IPPV)

Erakundearen historia:

Gerraren ondorengo urteetan, suntsipen handia jasandako hiriak berreraiki egin behar izan ziren. Horretarako, eraikuntzako jarduera sustatzeko ahalegina egin zen, eta, hori lortzeko, erakundeak sortu ziren eta arauak onartu. 1939ko apirilaren 19ko Legearen bidez, Etxebizitzaren Institutua sortu zen eta errenta txikirako etxebizitzak babesteko araubide bat ezarri zen. Hasieratik, gaitasun administratibo eta ekonomiko nahikoa eman zitzaion bere helburua betetzeko: etxebizitza sozialen sustapena eskala handian sustatzea. Eginkizun hauek zituen: "eraikuntzarako arauak ematea, etxebizitza eta material motak hautatzea, eraikitzaileen ekimenak antolatzea eta orientatzea, eta, onura jakin batzuk emateari esker, errenta txikirako etxeak eraikitzen laguntzea, lehenik eta behin alderdi hauei erantzunez: xumeenen beharrak eta etxeek higie-ne eta eraikuntza kalitate baldintzarik zorrotzenak betetzea". Benetako eskaera publikoei erantzuteko eraiki behar ziren etxebizitza babestuak, eta ez estimulu pribatuei. Horretarako, ezer baino lehen, arazoak ezagutu eta baloratu egin behar ziren. Horregatik egin behar ziren Plan Orokorrak. Ezin zen etxebizitza babestuak eraikitze-ko baimenik eman harik eta Etxebizitzaren Institutu Nazionalak eraikuntza plan orokorrak egiten zituen arte. Helburu horiek lortzera bideratu zen Etxebizitzaren Institutu Nazionalaren lana; horretarako, tokiko korporazioen eta Etxeko Obra Sindikalaren laguntza izan zuen. 1939ko irailaren 8ko Dekretuaren bidez, Errenta txikirako etxebizitzak babesteko apirilaren 19ko Legea aplikatzeko erregelamendua onartu zen.

1944ko azaroaren 25eko Legearen bidez —"Klase ertaina" deiturikoarentzat errenta etxeak eraikitze-ko kontribuzioak eta zergak murrizteari buruzkoa— etxebizitza hobaridunen figura sortu zen. Izen horren zergatia da etxebizitzak eraikitzen edo eraberritzen zituenak zenbait onura izanen zituela, hala nola 20 urtez kontribuzio eta ariel batzuetan ehuneko laurogeita hamarreko murrizpena. Horren ondotik, 1948ko apirilaren 14ko Aginduaren bidez aldatu zen; etxebizitza moten sailkapena hiru multzotan mantendu zen, bai eta kontribuzioen eta zergen % 90eko hoberia ere. 50eko hamarkadan, etxebizitzaren garestitasun izugarriak eta landatik hirirako exodoak eraginda, erregimen berriak neurriak hartu zituen etxebizitzaren gabezia hori arintzeko.

1954ko uztailaren 15eko Legearen bidez —"errenta mugatuko etxebizitzak" babesteari buruzkoa—, etxebizitza kategoria hori sortu zen, plan orokorren barruan kokatua eta Etxebizitzaren Institutu Nazionalak onartua. Helburua zen familia "ekonomikoki ahulen" mesederako etxebizitzak eraikitzea; horretarako, zerga onura eta salbuespen jakin batzuk ezarri ziren eta beren etxebizitzak eraiki nahi zituzten partikularren ekimenak babestu ziren. 1955eko ekainaren 24ko Dekretuak ezarritako erregelamenduaren bidez garatu zen legea. 1955eko uztailaren 18ko Aginduaren bidez, Institutuaren probintzia zerbitzuak berrantolatu eta Eskualde Ordezkaritzak sortu ziren; besteak beste, Aragoi, Errioxa eta Nafarroako Eskualde Ordezkaritza, zeinaren burua Zaragozan baitzegoen.

Estatuko Administrazio Zentrala berrantolatze-ari buruzko 1957ko otsailaren 25eko Lege Dekretuaren bidez, Etxebizitza Ministerioa eta Etxebizitzaren Institutu Nazionala sortu ziren; bigarrena, ordura arte, Lan Ministerioaren mende egon zen. 1957ko apirilaren 26ko Dekretuaren bidez —Etxebizitza Ministerioaren behin-behineko erregelamendu organikoa

onartzen zuena—, probintzia hiriburu bakoitzean Ministerioaren Ordezkaritza bat egotea erabaki zen, eginkizun hauek betetzeko: probintzia eremuan departamentuko zerbitzu eta erakunde zentraleri zegozkien parekoak, eta, bereziki, Etxebizitzaren Institutu Nazionalaren Eskualde eta Probintzia Ordezkaritzei, Etxebizitzaren Fiskaltzaren Probintzia eta Toki Ordezkaritzei, Hirigintzako Probintzia Batzordeei eta Hondatutako Eskualdeetako Eskualde Burutzei zegozkienak. Urte horretan bertan, 1957ko azaroaren 13ko Legeak —Madrilgo Gizarte Larrialdietarako Planari buruzkoa— "diruz lagundutako etxebizitzaren" figura sortu zuen, 1954ko Legean ezarritako errenta mugatuko etxebizitzaren artean. Etxebizitza horiek, errenta mugatuko etxebizitzetarako aurreikusitako zerga salbuespenen onurez gain, itzuli beharrik gabeko dirulaguntza jasotzeko eskubidea izanen zuten. Azkenik, uztailaren 24ko 2131/1963 Dekretuaren bidez —Estatuaren babes ofizialeko etxebizitzari buruzko legearen testu bategina onartzen zuena—, arlo horretan indarrean zegoen legeria guztia bateratu zen, "babes ofizialeko etxebizitzaren" figura sortu zen eta ordura arteko legeria ugaria indargabetu zen. "Babes Ofizialeko Etxebizitza" gisa, honako hauek sailkatzen ziren: Etxebizitzaren Plan Nazionalaren eta jarduketako programen barruan, Etxebizitzaren Institutu Nazionalak onartzen zituen proiektuen arabera eraikitzen zirenak —proiektuak onartzeko, Araudian eta Ordenantzetan adierazitako baldintzak bete behar zituzten—.

Apirilaren 1eko 19/1977 Legeak sindikatueta elkartzeko eskubidea onartu zuen, eta, urte bereko ekainaren 2ko Errege Lege Dekretuaren bidez, derrigorrezko sindikazioa iraungi zen. Hiri Ondare Sozialaren Administrazioa erakundea maiatzaren 12ko 1112/1978 Errege Dekretuaren bidez sortu zen. Honako eskumen hauek bereganatu zituen: ondarea, funtzionarioak eta ordura arte Etxeko Obra Sindikalari esleitutakoak.

Irailaren 26ko 12/1980 Errege Lege Dekretuaren bidez, ezabatu egin zen Etxebizitzaren Institutu Nazionala, zeina, Hiri Ondare Sozialaren Administrazioarekin eta Urbanizazio Institutu Nazionalarekin batera, Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Institutua izeneko organismo sortu berri batean txertatu baitzen. Helburu hau zuen azken horrek: Estatuari zegozkion etxebizitza arloko era guztietako jarduerak sustatzea, eta, bereziki, Konstituzioaren 131. artikuluan xedatutakoaren arabera onartzen ziren etxebizitza planek esleitzen zizkietenak. Era berean, ematen ahal zizkieten etxebizitzaren arloan Estatuako Administrazio periferikoari zegozkion eginkizunak. Urtebete geroago, Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Institutuaren arau organikoak onartu ziren (uztailaren 3ko 1875/1981 Errege Dekretua), eta ezarri zen Ministerioaren probintzia ordezkaria Institutuaren probintzia ordezkaria ere izanen zela.

Apirilaren 1eko 1484/1985 Errege Dekretuaren bidez, Nafarroari eskualdatu zitzaizkion ondare arkitektonikoaren, eraikuntzaren eta etxebizitzaren kalitate kontrolaren arloko Estatuaren eginkizunak eta zerbitzuak, barne hartuta Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Institutuari zegozkion ondasun eta eskubide guztiak.

Funtsaren antolamendua:

042.01 ADMINISTRAZIOA

- 042.01.01 Estatistika
- 042.01.02 Korrespondentzia
- 042.01.03 Langileen espedienteak
- 042.01.04 Kontabilitateko espedienteak
- 042.01.05 Erakunde eraikitzaileen erregistro berezian egindako inskripzioak

042.02 ONDAREA

- 042.02.01 Ondasun higiezinak kudeaketa

042.03 ZERBITZUAK

- 042.03.01 Sustapen pribatuko babes ofizialeko etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa
- 042.03.02 Etxebizitza babestuen sustapen publikoa
- 042.03.03 Errenta mugatuko etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa I. taldea
- 042.03.04 Errenta mugatuko etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa II. taldea
- 042.03.05 Etxebizitza sozialen kalifikazio objektiboa
- 042.03.06 Etxebizitza sozialen kalifikazio subjektiboa
- 042.03.07 Etxebizitza hobaridunen adierazpenak
- 042.03.08 Etxebizitzak birgaitzeko laguntzak

Sarrera baldintzak:

Sarbide mugatua. Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratzeko, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.